

— 90 EKO PYRENAIGA SARIKETAK —



ALEN

PATXI DE LA FUENTE

DENBORAK aurrera egin ahala, gizakiak bere iragana ahazten doa. Eta autobideak, etxeak eta lantegiak eraikitzen dituen heinean aintzineko bideak sasitzen, baserri zaharren hormak arrakaltzen, meazuloak estaltzen dira ezinbestean, konturatzen direnerako —konturatzekotan— denborak eraman zituelarik guzti haien lekuko zirenak.

Horrela gertatu zitzaion ere, beste askok bezala bere sorterrira utzi eta Aleneko meatzetara lan bila joan zen hurari. Edozein garai latza izan da primua ez zenarentzat: morroi izateko jaio ez eta apaiztegira, Ameriketara edo industriara jo behar izan nahi ez eta esklabu joan, zeren eta meatarritza lan gogorra bait da, eta irabazia txikia. Baina sasoi hartan berak ez zekien hori, eta gaztea eta biziguratsua zen.

Alenera heldu zenean jendetza haundia bizi zen mendi magaletan. XIX. mende bukaeran burdin produkzioak gorakada aipa-

garria egin zuen eta meatz inguruak barrakoiz bete ziren eta barrakoietan herri dezberdinetako langileak pilatzen ziren. 2000ren bat gizon bizi zen alderdi hartan. Beste batzuk hurbileko herri eta auzoetatik zetozen, baina baziren 15 km.tan ibili behar zutenak lanera joateko eta beste horrenbeste etxeratzeko. Goizeko seiretan hasten ziren lanean eta arratsaldeko bostetan amaitu, otamen eta bazkariarako bakarrik geldituz. Eta hau ateri bazegoen, ezen euria eginez gero ezin bait zen lan egin, ez zeuden eta eurirako jantzirik ezta gomazko zoladun botak ere. Egun haietan janaria irabazi barik etxeratu behar.

Burdin minerala eta tren

Hain ugaria zen ateratzen zen burdin minerala trenbide bat ere eraiki zutela. Hori Alen herrian izan zen. Alen harri gorritzko mendi tontorraren azpiko meatokian eraikitako herri artifiziala zen. Bertan trenaren ko-

txerak zeuden. Euren aurrean aldaketak egiteko eta bagoiak gordetzeko bost edo sei trenbide zabalten zen. Baita uraren gordailu zaharra, trenbide aldaketarako orratzak eta burdinezko beste aparailu batzuk ere. Handik bapote makina eta 24 bagoiz osotutako tren aateratzen zen. Mendi magalari zerraion aldapa txikiko trenbide batek zerman. Mendi lepora heldu eta beste isurialdera igarotzen zen, tunel baten bidez bira laurdena emanez amildegiari elkartzut jartzen zelarik. Han planua zegoen. Planua poleen bidez bagonetak igo eta beheratzeko aldapa haundiko bidea zen. Tunel zulutik hiru burdinbide ateratzen zen: erdikotik hiru bagoitako taldea beheratzen zuten; aldeetakoak, igotzekoak, hormatxo batzuen gainetik zihoazen bagoiak erraztasun haundiagoz sar zitezten. Tunel gainean haitzean landutako zulo batetan harrizko zutabez sostengaturik burdinezko gurpil haundiak zeuden. Horrela behera zihoazen bagoneta bete-ek hutsik zeudenak igotzen zituzten. Abiada

«Euskal Herriko Mendiak»
gaiari buruzko sariketaren
lehen saria, euskaraz.

**Aleneko meatzariak, hura bizimodu
latza: lana ugaria, irabazia eskasa!
Denbora badoa eta non da zeuen
emazteen izerdia? Non zeuen seme-alaben
ikatzeko begiak?**

Non zeuen malkoak?



**Alen herritxoa,
zenbatek
begiratu egin
zizun meatz
hauetatik
zuhaitzen artean
galtzen zen
trenean bere
bizitza zihoala
sentituz.**

gelditzeko balazta haundiak eta igotzen ziren bagonetak tunelean bakarrik sartzen ez zirenerako eskuz eragiten zen makina zeuden. Sakan hondora heltzeko 50en bat metro falta zirenean hiru trenbideak bakar bat osatuz batzen ziren behekaldean zubi baten bidez errekatxoaren beste aldera pasatzeko. Handik eta beste makina baten bidez Ingalaterrarako itsasontziak zain zeuden Castrok portura zeramaten mea.

Baina ez zen hau mea ateratzeko bide bakarra. Mendebaldean zegoen Federico meatz haundiatik, Sorpresatik eta beste meatz txikiago batzuetatik harrizko zutabe haunditan oinarritutako gurpilek sostengatzen zituzten kableen bidez burnizko ontzitan zeramaten Callejamalako kargalekuetara. Han tolba haunditan gordetzen zuten, bagoiak azpian jartzean ateak ireki eta bagoiak betetzeko. Egun guztian zeuden hauek lan eta lan eta hala ere ez ziren mea guztia ateratzeko nahikoak.

Askotan, egun guztia trabailatzen aritu ondoren, etxera diru apur bat gehiago era-

matearren, extra-lana egiten zuten. Hau zera zen: zaretaka zazpi bagoneta ta erdi zaborrez bete, gero herritik gertu maldan behera botatzeko. Lan nahikoa bagoneta bakoitzak bi tonelada ta erdi zabor zeramala kontutan izanik. Eta zaborra bustita zegoen egunetan palaz egin behar zen dena zarean itsatsirik geratzen zen eta.


Aste luzeak eta tabernak

Aste luzearen amaieran larunbata arratsaldea heldu eta soldata ordaintzen zietenean tabernara joaten ziren, eta elkarrizketan batera ardoa edaten hasten ziren eta laster kantetan, eta batzutan dantzatan ere. Hala zebiltzan gau guztian isilik eta baldarki etxeratu arte. Gure gizonak beranduen etxeratzten zirenekoekin uzten zuen taberna, bere ohe otza hutsik aurkitzeak tristura eta etxemina bizten bait zizkion. Gauaren iluntasunean izarrak zituen lagun bakarrak.


Ez zen hala eta guztiz luzaroko horrela izanago. Aspaldin begia bota zion tabernariaren alaba gazteari, eta laster bera ere konturatu zen eta begirada ezitsua eta irritsu xamurak eskeintzen zizkieten elkarri. Gauzak honela jarraitu ziren San Luisarte. Aleneko zainda-

riaren omenez erromeria ospetsua antolatzen zen eta bertako eta inguruetakoz gazteak, eta ez hain gazte zirenak, biltzen zituen. Iluntzerakoan hurreratu zitzaion eta ea etxera laguntzea nahi zuen galdetu eta neska pozik. Gau hartan hitza eman zioten elkarri, eta gurasoek onartu zuten, gizona langilea eta azkarra bait zen. Udazkenaren amaierako, Sta. Luzia egunean, ezteiak izan ziren. Meza nagusia ospatu zen egun hartan lehen Sta. Luziari eskeinitako baseliza bat zegoelako kobazulo batetan eta nahiz eta meatzak desagertarazi oraindik jaia zelako, gero eta jende gutxiagok bazekien ere ohituraren jatorria. Ezkondu eta alokatutako etxetxo batetan bizi ziren eta urte bat igaro baino lehen lehenengo alaba jaio zen eta geroago beste hiru baina semerik ez. Badirudi gerrate zibila baino lehen joan zirela, eta badiote seme bat ere izan zutela baina honetaz ez da jadanik inor gogoratzen.


Gaur egun Alen herriak bost edo sei etxe eta baseliza besterik ez du. Zuhaitzen artean barrakoiaren hondarrak dautza eta jadanik erabiltzen ez den uhaska eta ikuzlekua. Handik gertu, baselizaren aurrean kanpainadenda jartzeko zelaixo apropos bat dago. Iturriaren gainean data bat izkiriaturik: 1900. Ikuzleku barnean suil zulatu bat dago eta berak bakarrik jakingo du ze denbora daraman hor.



**Zuloaren
iluntasunatik
meatzari
zaharrek
begira
ditudaneko
ikara
sentitzeari
ezin diot utzi.**



ALÉN MENDIAREN HEGOALDEKO BISTA, ARTZENTALES HARAN TXUKUNETIKOA



Egilearen argazkiak.

Ekialdetik burdinbidea izandakoa ateratzen da. Zuhaitz eta tunelek leku esanguratsua bihurtzen dute eta bere aldapa txikiagaitik bizikletaz ibiltzeko oso eroso. Beste isurialdera igarotzeko lepora heltzean bidegurutzte bat dago. Eskumatik aurrera eginez tunel eta planura heltzen da. Planua guztiz sasiturik dago eta bertatik behera joatea nahiko gatzatza da. Handik pistak Las Muñecas mendatera darama. Bidegurutztean ezkerrederantza eginez Callejamalara heltzen da ere, hots, planuaren beheko aldera. Lehenengo biran iturri bat dago eta buelta sakon bakoitzean urjauzi itsurako uharreak agertzen dira zuhaitzen artean, udan goroldioak ferekatzen duela haitzetan zehar dabilen ur apurra. Callejamalako zubia, sendoa izan arren, aspaldian jausi zen. Haren inguruan hormetatik gora igotzen gonbidatzen duten kargaleku haundi bi ikus daitezke eta mendirantz Federico mehatzeko funikularren zutaberen bat. Callejamalatik oso jende gutxi ibiltzen da, eta ixilik joanez gero erraz ikus daitezke hegazti harrapakariak zuhaitzen artean eta zori onez iluntzerakoan bere sekretuak gordetzeko lasterka egiten duen azeriren bat ere. Ibarra hestua da eta bidea errekatxoaren ondotik doa. Ura gardena, baina hondoa gorritzen du, darion lurraren erraien adierazgarri. Bideak aurrera egiten du ibarraren ezkerrealdetik, erreka gero eta beheago utziz, Otañeseko aranean sartzeraino. Handik Castrora zihoan baina gaur egun, Santullaneko harrobitik aurrera zailtasun haundiz bakarrik jarrai daiteke.

Itzul gaitzen bide gurutzera zeren eta bizkarreko marka gorrietatik gora eginez laster surkitzen ditugu Gerrate Zibileko luebakiak. Zuge erraldoien aztarnak legez zabaltzen dira lepo guztitik, leku garrantzitsuenetan zabalagotuz ametrailadora kabiak ezartzeko. Jendeak Karlistaden sarraskiak ahaztuta zituzteanean gerrate zibila heldu zen era gogor jo, frentea bi hilebete egon bait han geldituta. Nagusiak pozteko eta soldaduei adore emateko nazionalak Castro-Alen frentea deitu zuten, nahiz eta Castro gorriena izan orain-

dik, eta hortik datorkio batzuk Castro-Alen deitzea mendiari. Nazionalak meatzak hartu zituzten arratsaldean talde txiki batek Maria meatza gaineko lepoan zegoen Udaeta base-rrian gorde zituzten euren buruak. Eta soldaduak lepakan bandera jartzen saiatzen zirenean lehioetatik tirokatzen zituzten eta soldadu pilo bat hil zuten trapu zahar bategaitik. Azkenean etxeari leher erazi zioten, baina herritarren artean gizon batek suteari ihes egin eta meatzetan izkutatu zeneko zurrumurrua zabaldu zen eta gaueko iluntasunak gorderik, izarrak lekuko bakartzat, atera eta itsasaldera joan ei zen...

Iparraldetik tontorrera heldu baino bost minutu lehenago, sarrategi zahar bat dago. Hauek zuhaitz eta ur ugari zegoen lekuetan egiten zituzten. Ikaztobiak prestatzen zituzten egurrikatza lortzeko eta idi gurdiz mea ze-

ramaten haraino burnia egiteko. Hau aintzinean zen eta azken oroimenak ere galdu ditu denborak, inguruetan dauden 30 sarrategiak, gizakiari ezer azaldu ezinaren ezinaz, ixilaraziz.

Gailurreko gutontzian idatzita dago

Gailurreko gutontzian zera dago idatzirik: «Landu zituzten Bizkaiak eta bere gizonak Enkarterrietako meatzak» edo agian «Landu zituzten Bizkaia eta bere gizonak Enkarterrietako meatzak», ergatiboa zein den ez bait da ondo ikusten.

Tontorretik txikiagoak dirudite meatzak. Lurra gorria, erdibituta: hainbeste neke jasan dituztenen itsurakoa. Alde haundia dago hauen eta Arzentaleseko larre berde





eta baserri txukunen artean. Goizeko lainoa altxatzen denean munduan dena maitasuna dela lirudike. Guztiz ederra da ere Federico meatzetik behera Peñalba latsa jarraituz doan bide ahaztua.

Gero eta alor haundiagotan landatzen dituzte pinuak, eta mendia pista zakarrez betetzen ari dira. Basoan ere nor den agintaria argi utzi nahi izango balute bezala, bertako basoa larre eta bide inguruetara baztertu dute. Baina txoko kaxkarrenetan urki eta haritz gazteak hazten dira; gorosti eta gurbitzak ere berpizten saiatzen dira ohian txikietan, mudurri, itxaropentsu agian? Udaren azkenaldirako mazusta eta basarondoak fruituz betetzen dira. Beheko larreetatik gailurreraino kamamilaz janzten dira zelaiak. Tontorraren hegomendebaldeko magalean basarondo txikiak hazten dira haitzen arte-tik.

Urrunera Mello, Eretza, Pico de la Cruz, Enkarterrietako mendiak, Karrantzakoak, Las Nieves —bere baselizatxoarekin—, Cerredo, Ventoso eta ikusten dira eta Castrok faroa eta itsasoa... Ai, itsaso hitsa, ez al zaigu ito itxaropena?

Itsasoari josirik izandako begirada beherratu eta Betaioa ikusten dugu aurrean. Badiote meatzari zahar bat igoten zela egunero, eta belarra kenduz lurtean marraztutako gurutze baten aurrean belauniko jartzen omen zen, eta han egoten aldi luzean.

Baina meatzariok, nora joan zarete? Nora joan dira aurpegi irribarretsuz putzuetan jolasten zuten ahur lohiak? Nora ikuzlekun izarak zuritzen zituzten andrak? Nork daki zeuen izerdi eta malkoetaz, zeuen farre eta txerataz?

Gau ilunean izarrek baino ez erantzun dezakete, eta gu malkor eta larretan zehar gabiltza garena adieraz dieziguken berba baten bila.

1900.urteko iturria eta bertan, norbaitek betirako ahaztu zuen suil bat, altxatzen dira meatzen lurren aurrean.

Planuaren beheko aldetik datorren pistan geldialditxo bat eginez gero, Callejamalako Ibarra bere ixiltasun osoan ikus dezakegu, eta han, urrunean, Castro Urdiales eta itsasoa.

RESUMEN

ALEN

A finales del siglo pasado se produjo un gran auge de la minería en los alrededores del monte Alen, en las Encartaciones vizcainas. La población creció rápidamente: donde antes no había sino bosques, pastizales y algunos caseríos diseminados edificaron barracones, caminos, nuevas bocas de mina... Para sacar el mineral hasta el mar construyeron un ferrocarril. Partía de la misma boca de la mina, cerca del pueblo de Alen, y bordeaba la falda del monte. Por un plano inclinado, con un sistema de poleas, bajaban las vagonetas al fondo del barranco de Callejamala. De allí otra máquina las llevaba al puerto de Castro-Urdiales. Desde otras minas el mineral se transportaba en funiculares aéreos hasta los cargadores de Callejamala.

Hoy en día, todas estas ruinas, como las trincheras de la Guerra Civil que se extienden a lo largo de toda la loma, o las escombreras perdidas entre los pinos, o incluso el viejo y abandonado camino que baja junto al arroyo de la mina Federico, nos hablan de otras historias, de risas de niños con la cara manchada, de sudores fríos, de cuentos y de amores, de verdes campos y desastres ecológicos que el tiempo va borrando de nuestra memoria.

